

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

## Irakasleak atzerriko hizkuntzetan trebatzeko diru-laguntza deialdia argitaratu du Hezkuntzak

*Departamentuak 40.000 euro bideratuko ditu irakasleek udan atzerrian egonaldiak egin ditzaten*

Osteguna, 2018.eko martxoak 15

Hezkuntza departamentuak 1000 euroko 40 diru-laguntzen deialdia ireki du, irakasleek udan formakuntza ikastaroak egin ditzaten atzerriko akademia eta unibertsitateetan. Haur, Lehen eta Bigarren hizkuntzan nahiz Hizkuntza Eskola Ofizialetan atzerriko hizkuntzak irakasten dituzten irakasleei zuzendutako diru-laguntzak dira.

Deialdian interesa duten irakasleek web bidez egin ditzakete eskariak, apirilaren 3ra bitartean. Haur, Lehen edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzak (ingeleza, frantsesa, alemana) edo atzerriko hizkuntzetan (British, IIP, FIP, AHIP, Bigarren Hezkuntzako programa eleaniztuna eta atal elebidunak) irakasten ari diren, nahiz Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetan ari diren irakasleei zuzenduta daude laguntzak. Ikastaroa hizkuntza hori ofiziala duen herrialde batean egin beharko da, uztailaren 1a eta abuztuaren 31 bitartean, eta, gutxienez, bi asteko iraupena eta berrogei irakastordu izan beharko ditu.

Guztira 40 laguntza emango ditu Hezkuntza departamentuak eta horietatik 27 sare publikoko irakasleentzat izango dira: 22 ingelesera, 4 frantseserako eta 1 alemanerako. Gainerako 13ak itunpeko ikastetxeetan ari diren irakasleei zuzenduta daude: 10 ingelesez, 4 frantsesez eta 1 alemanez. Gehienez ere, 1000 euroko diru-laguntzak izango dira eta ikastaroa egin ondoren ordainduko dira.